

## **PRENTSA OHARRA**

**Mediku bakoitzari esleituriko erabiltzaileen kopurua gehienez ere 1.500ekoa izango da**

### **OSAKIDETZAK LEHEN MAILAKO ATENTZIOA SENDOTUKO DU 130 MEDIKU BERRI GEHITUZ I**

**Ekimenak asistentziaren kalitatea hobetzeko planari erantzuten dio**

(Bilbo, 2008ko maiatzak 23)

Osakidetzak guztira 116 Familiako Mediku 14 Pediatra gehiago jarriko ditu Osasun Zentroen sarearen bitartez eskaintzen duen Lehen Mailako Asistentziaren zerbitzura. Ekimena aurten bertan praktikara eramango den prozesu batean sartzen da, eta argi erakusten du Osakidetzak Lehen Mailako Atentzioaren alde egin duen apustu irmoa eta, hain zuzen, erakunde sindikalekin adosturiko Akordioan jasotako puntuetako baten betetzea suposatzen du.

Mediku hauen gehitzearekin nabarmenki hobetuko da erabiltzaileei emango zaien asistentzia, izan ere, batetik, kontsulta bakoitzari dedikatzen zaion denbora luzatuko baita eta, bestetik, denbora gehiago geratuko da fakultatiboen etengabeko prestakuntzarako eta osasunaren sustapeneko eta prebentzioko jarduerak gauzatzeko. Eta bestalde, profesionalek lan karga gutxiagorekin bete ahal izango dute beren eginkizuna. Azken batean, herritarrek atentzio hobea jasoko dute.

Familiako Medikuen 116 plaza berri sortzeak profesional plantillaren %8,45eko gehikuntza suposatzen du (orain bertan 1.372 dira). Eta 14 pediatra berri gehitzearekin, espezialista hauen kopurua %5,27 gehitzen da (orain bertan 271 dira). Pertsonal medikoaren gehikuntza hau Osasun Zentroetako Erizaintza eta Administrazio arloak sendotzearekin osatuko da. Gutxienez Erizaintzako 100 Diplomatu eta Bezeroaren Arretako 50 Profesional izango dira.

Une honetan, Familiako Mediku bakoitzak batez beste 1.680 erabiltzaileko kupoak dauka; eta Pediatrek, 805 hurrekoa. Egingo diren gehikuntzekin, 2009 urtearen amaierarako, Familiako Mediku bakoitzaren pazienteen kopurua 1.500 baino gehiago ez izatea lortuko da, eta Pediatra bakoitzarena, ez 800 baino gehiago.

Beren plazetara sartuko diren fakultatibo berriak Osakidetzan esperientzia daukaten profesionalak dira eta, horrexegatik, ezagutzen dituzte Euskal Sistema Sanitario Publikoa eta beronen prozedurak. Gehienak arratsaldeko lan txandan arituko dira, horretan baitago eskaririk handiena populazioaren aldetik.

### **OTI kupoaren banaketa berria**

Medikuen kopurua gehitzean, OTI (Osasun Txartel Indibiduala) kupoak deritzona ere, hau da, mediku bakoitzari dagokion kopurua ere, berrantolatu egin beharko da. Prozesu honek eragina izan dezake erabiltzaileentzat, baldin beren oheburuko medikuak 1.500 erabiltzailetik gorako kupoak badauka, eta orobat haurrei dagokienez, beren pediatrik 800 pazientetik gorako kupoak badauka. OTI kupoko soberakinak fakultatibo berriei esleituko zaizkie, ezein medikuk aipaturikoak baino paziente kopuru handiagorik ez edukitzeko helburuarekin.

Dena dela, funtsezko irizpide baten arabera egingo da berrantolaketa: familia bakoitzeko kide guztiek mediku berbera edukiko dute.

Mediku berria esleitzen zaien pertsona guztiek aldaketari buruzko informazio indibidualizatua jasoko dute. Osasun Zentro bakoitzeko Bezeroaren Arretako Eremuak ere prestatu egongo dira eskatzen den beharrezko informazio guztia eskaini ahal izateko.



Plaza medikoen gehikuntza honek Osakidetzaren Lehen Mailako Atentzioko zerbitzuen benetako sustapena suposatzen du, hura baita sistema sanitariorako sarrera atea eta bere kalitatea da ematen den osasun zerbitzuaren eraginkortasunaren bermea.

Une honetan, herritarren osasun arazoan %90 Lehen Mailako Atentzioko eremuan ebazten dira.

Gure jokabide honek argi eta garbi erakusten du Osakidetzak Lehen Mailako Atentzioaren alde egiten duen apustua, eta horrela erantzuten dio Gizartearen aurrean bere gain hartuak dituen konpromiso garrantzitsuenetako bati.

**OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA OROKORRA**